

ZARAUTZ / Ekitaldi desberdinak osteguneko Liburuaren Egunaren inguruan

DV. Urtero, apirilaren 23an, Liburuaren Eguna ospatzen da, Miguel De Cervantes Saavedra eta W. Shakespeare eta Garcilaso de la Vega idazleen heriotza eguna ospatzeko. Hau dela eta, ekitaldi desberdinak antolatu dira ostegun bertan. Honela, arratsaldeko 17.30tan ipuin kontaketa izango da haurrentzat haur liburutegian Pello Añorgaren eskutik: egun horretan, maileguren bat egiten dutenen artean, ipuinak zozketatuko dira. Bestalde, XXV. Lizardi Sari banaketa.egingo da. Aurten, Xabier Mendiguren Elizegiren ' Egun bat Petre Romanescuren bizitzan ' irabazlea izan da.

Era berean, egunean zehar eta helduen liburutegian, Zarauzko Udalak, Anjel Lertxundi eta José Antonio Legorbururen eskutik argitaratutako ' Tresak eta kordelak ' liburuaren banaketa egingo du.

Adierazi ere, ELAN-Euskadi, Hegolan eta Zaharautz, Gobernuz Kanpoko Erakundeek(GKE, ONG), aurten ere, liburu protagonista duen hilabete honetan, liburu bilketari ekin diotela. Hori dela eta, Sanz Enea Liburutegiak bilketa horretan parte hartuko du eta, bildutakoa aipatutako GKEn artean banatuko du. Beraz, liburuak, zein CD, VHS, DVDekin beste herriko biztanleei laguntzeko prest dagoenk bai liburu, baita CD, DVD eta VHS-ak ere liburutegira ekartzerik besterik ez du.